# VILLAVA ATARRABIA

190 | OTSAILA 2026 FEBRERO

Atarrabiako udal informazio aldizkaria
Boletín de información municipal de Villava




06 ZAINTZAK / CUIDADOS

## Zatoz boluntaritza taldean parte hartzera!

## ¡Anímate a participar en el grupo de voluntariado!

**HEMEN GAITUZU / SÍGUENOS EN:**

**www.villava.es**

**Twitter** (municipal)

**Facebook**
(Berdintasuna-Igualdad / Kirolak-Deportes / Kultura-Cultura)

**EGIN ZAITEZ AUAko HARPIDEDUN! / SUSCRÍBETE AL BIM**


04



2026ko aurrekontuak, onetsiak
Aprobados los presupuestos de 2026

14



Ultzama ibaia eta Ezkaba mendia garbitzeko auzolana
Auzolan de limpieza del río Ultzama y del monte Ezkaba

# OSOKO BILKURAK | PLENOS

## OSOKO BILKURA ARRUNTA

### 2025eko AZAROAREN 27a

**Hasiera batez onetsia ordenantza fiskalak nahiz prezio publiko eta tarifen arauak aldatzeko eta lurralde kontribuzioaren zerga-tasa ezartzeko espedientea, 2026rako.** Ainara Franchez (EH Bildu) eta Maia Tabar (EH Bildu) izan ezik gainerako zinegotziak osoko bilkuran izan zirela, udalbatzak honako hau onetsi zuen, 12 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN eta Contigo Zurekin) eta 3 kontra (UPN eta PP): % 0,3386ko karga-tasa ezartzea lurraren kontribuzioa ordainarazteko; %25eko zerga-tasa onestea hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergarako; egungo indize-eskala mantentzea, ekonomia-jardueren gaineko zergan zehaztutako gutxieneko kuotei ezartzeko; eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren karga-tasa mantentzea, eta zenbait aldaketa hasiera batez onestea ordenantza fiskal orokorrean eta, era berean, udal-zerga eta -tasen ordainarazpena arautzen duten ordenantzetan eta eranskinetan.

**Hasiera batez onetsia jubiloteka zerbitzua arautzen duen ordenantza.** Udalbatzak aho batez onetsi du jubiloteka zerbitzua arautzen duen ordenantza.

**Berretsi da alkatetzak gora jotzeko RA 25/1348 errekurtsoan aurkeztutako alegazio idazkia. Errekurtso hori jarri zen Atarrabiako Udalaren osoko bilkurak 2025erako plantilla organikoa behin betiko onetsi eta 2025eko ekainaren 16ko NAOn argitaratutako erabakiaren aurka.** Alkatetzak gora jotzeko RA 25/1348 errekurtsoan aurkeztutako alegazio txosten guztia berretsi zuen osoko bilkurak, 10 boto izan baitziren alde (EH Bildu eta Atarrabia Geroa Bai), 1 kontra (Contigo Zurekin) eta 3 abstentzio (UPN, PP eta PSN). Errekurtso hori jarri zen Atarrabiako Udalaren osoko bilkurak 2025erako plantilla organikoa behin betiko onetsi eta 2025eko ekainaren 16ko NAOn argitaratutako erabakiaren aurka. Erabakia, halaber, Nafarroako Administrazio Auzitegiari jakinarazi zaio, legez aurreikusitako ondorioak izan ditzan.

**Adierazpena, Euskararen Nazioarteko Egunaren karira.** Udalbatzak Euskararen Nazioarteko Egunari buruzko adierazpena onetsi zuen, 13 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai eta Contigo Zurekin), 3 kontra (UPN eta PP) eta abstentzio bat (PSN). Udalak, horrenbestez, ospakizunarekin bat egin eta konpromisoa agertu zuen gure auzokideetarik inor ere ez gelditzeko euskarazko arreta jasotzeko aukerarik gabe; udal langileek gero eta aukera handiagoa izan dezaten euskara lanean erabiltzeko eta, era berean, euskara zabaltzearen aldeko lana egiteko, eta xede berbera duten beste erakunde eta entitate batzuekin lankidetzan aritzeko.

**Onetsi da Burlata eta Uharteko Udalekiko kudeaketa-esleipena Hiru-Herri klubeko kirol jarduerak egiteko.** Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen Burlata, Atarrabia eta Uharteko Udalen, eta Hiru Herri atletismo klubaren arteko lankidetza hitzarmena jarduera fisiko mankomunatuak antolatzeko.

## OSOKO BILKURA ARRUNTA

### 2025eko ABENDUAREN 22a

**2026ko ekitaldiko aurrekontu orokor eta bakarra.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren. Aurrekontu orokorra bozkatu baino lehen, Atarrabia Geroa Baik bi zuzenketa aurkeztu zituen: bata, Udalak 1.300.000 euro bideratu zitzan San Andres zubi berrira, lanak eraginen duen gainkostuari aurre egite aldera. Bozketa eginik, zuzenketa atzera bota zen, 14 boto izan baitziren kontra (EH Bildu, UPN, PP, PSN eta Contigo Zurekin) eta 3 alde (Atarrabia Geroa Bai). Bigarrena, 200.000 euro baliatzeko Eguneko Zentro bat eraikitzeko proiektu batera. Bozketa eginik, zuzenketa atzera bota zen, 13 boto izan baitziren kontra (EH Bildu, UPN, PSN eta Contigo Zurekin), 3 alde (Atarrabia Geroa Bai) eta abstentzio bat (PP).
2026ko aurrekontu orokor eta bakarra bozkaturik, onetsi egin zen, 10 boto izan baitziren alde (EH Bildu eta Contigo Zurekin), 3 kontra (UPN eta PP) eta 4 abstentzio (Atarrabia Geroa Bai eta PSN).

**2025eko plantilla organikoa.** Osoko bilkurak 2025eko plantilla organikoa onetsi zuen, 13 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai eta PSN) eta 4 kontra (UPN, PP eta Contigo Zurekin).

**Hitzarmena, Burlatako Udalak deialdia antola dezan hautaprobak eginez zerrenda bat osatzeko eta zerrenda hori kudeatzeko; euskara teknikarien eginkizunak betetzeko izangaien zerrenda izanen da, entitate sinatzaileek kontrata ditzaten, behar izanez gero.** Udalbatzak gaia aho batez onetsi zuen.

**Contigo Zurekin taldearen premiazko mozioa, gutxienez udal aterpetxeko tokien % 10 etxerik gabeko jendearentzat gordetzeko, neguan.** Contigo Zurekin taldearen mozioa bozkaturik, atzera bota zen, 11 boto izan baitziren kontra (EH Bildu eta UPN), 1 alde (Contigo Zurekin) eta 5 abstentzio (Atarrabia Geroa Bai, PP eta PSN). Mozioak eskatu zuen gutxienez udal aterpetxeko tokien % 10 (5 toki) gordetzea etxerik gabeko jendearentzat abenduan, urtarrilean, otsailean eta martxoan eta, era berean, lo egiteko eta gosaltzeko kostua Udalak har zitzala bere gain aurrekontu partida baten bitartez.




**190**
OTSAILA
2026
FEBRERO

ATARRABIAKO UDAL INFORMAZIO ALDIZKARIA
BOLETÍN DE INFORMACIÓN MUNICIPAL DE VILLAVA

**Argitaratzailea / Edita:** Atarrabiako Udala / Ayuntamiento de Villava
**Erredakzio Kontseilua / Consejo de Redacción:** Mikel Oteiza, Mikel Asiain, Javier López, Richard García, Yadira Martín, Javier Ibáñez

**Argazkia / Fotografía:** Jon Urriza / Atarrabiako Udala- Ayuntamiento de Villava
**Itzulpena / Traducción a euskera:** Kike Díez de Ulzurrun
**Egilea / Realiza:** Heda Comunicación

**Inprimatzailea / Imprime:** Idazluma
**Ale kopurua / Tirada:** 4.400
**LG / D.L.:** NA 1223-1996
**Doako banaketa / Difusión gratuita**

MIXTO
Papel procedente de fuentes responsables
Papera ingurumena zainduz sortua
FSC® C021816

# OROKORRA | GENERAL

## PLENO ORDINARIO

**27 DE NOVIEMBRE DE 2025**

**Aprobación inicial del expediente de modificación de Ordenanzas fiscales, normas de precios públicos y tarifas y fijación de tipo impositivo de Contribución Territorial para 2026.** En una sesión plenaria a la que asistieron todos los y las ediles excepto Ainara Franchez (EH Bildu) y Maia Tabar (EH Bildu), el Pleno aprobó por 12 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN y Contigo Zurekin y 3 en contra de UPN y PP, fijar en 0,3386% el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial; aprobar un tipo impositivo del impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana del 25%; mantener la actual escala de índices a aplicar sobre las cuotas mínimas establecidas en el impuesto de actividades; mantener el actual tipo de gravamen en el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras y aprobar inicialmente las modificaciones a la Ordenanza fiscal general, así como a las ordenanzas y anexos de tarifas que regulan la exacción de los impuestos y tasas municipales.

**Aprobación inicial de la ordenanza reguladora del servicio de Jubiloteca.** La corporación municipal aprobó por unanimidad la ordenanza reguladora del servicio de Jubiloteca.

**Ratificación de escrito de alegaciones presentado por Alcaldía en el Recurso de Alzada RA 25/1348, interpuesto contra el acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Villava publicado en el BON de fecha 16 de junio de 2025, sobre aprobación definitiva de la Plantilla Orgánica para 2025.** El Pleno aprobó por 10 votos a favor de EH Bildu y Atarrabia Geroa Bai, 1 en contra de Contigo Zurekin y 3 abstenciones de UPN, PP y PSN la ratificación en todos sus extremos del informe de alegaciones formulado por Alcaldia en el Recurso de Alzada RA 25/1348 interpuesto contra el acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Villava publicado en el BON de fecha 16 de junio de 2025, sobre aprobación definitiva de la Plantilla Orgánica para 2025, y dar traslado del presente acuerdo al Tribunal Administrativo de Navarra a los efectos legalmente previstos.

**Declaración con motivo del Día Internacional del Euskera.** La corporación aprobó por 11 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai y Contigo Zurekin y 3 en contra de UPN, PP y la abstención de PSN la Declaración institucional del Día Internacional del Euskera para adherirse a la celebración, para mostrar su compromiso de seguir trabajando para que ninguna de nuestras vecinas y vecinos se quede sin la posibilidad de ser atendido en euskera, para que el personal municipal tenga cada vez más oportunidades de utilizar el euskera en el trabajo y para mostrar su disposición de trabajar en la difusión del euskera y colaborar con otras instituciones y entidades con el mismo fin.

**Aprobación de encomienda de gestión con los ayuntamientos de Burlada y Huarte para la realización de actividades deportivas del club Hiru-Herri.** El Pleno aprobó por unanimidad el convenio de colaboración entre los Ayuntamientos de Burlada, de Villava y de Huarte y el club de atletismo Hiru Herri para la organización de las actividades físicas mancomunadas.

## PLENO ORDINARIO

**22 DE DICIEMBRE DE 2025**

**Presupuesto General Único para el ejercicio 2026.** Asistió a la sesión plenaria toda la corporación municipal. Antes de llevar a cabo la votación del Presupuesto General, se presentaron dos enmiendas de Atarrabia Geroa Bai: una para que el Ayuntamiento destinara 1.300.000 euros para el nuevo puente de San Andrés y hacer frente al sobrecoste que supondrá esta actuación. Sometida a votación, la enmienda fue rechazada por 14 votos en contra de EH Bildu, UPN, PP, PSN y Contigo Zurekin y 3 a favor de Atarrabia Geroa Bai. La segunda enmienda proponía destinar 200.000 euros al encargo de un proyecto de ejecución de obras de un Centro de Día. Sometida a votación, la enmienda fue rechazada por 13 en contra de EH Bildu, UPN, PSN y Contigo Zurekin, 3 votos a favor de Atarrabia Geroa Bai y 1 abstención de PP.
Sometido a votación el Presupuesto General de 2026 fue aprobado por 10 votos a favor de EH Bildu y Contigo Zurekin, 3 en contra de UPN y PP y 4 abstenciones de Atarrabia Geroa Bai y PSN.

**Plantilla orgánica de 2025.** El Pleno aprobó por 13 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai y PSN, y 4 en contra de UPN, PP y Contigo Zurekin la plantilla orgánica 2025.

**Convenio para encomendar al Ayuntamiento de Burlada la gestión de la convocatoria para la realización de pruebas selectivas y gestión de la lista de personas aspirantes al desempeño de las funciones de personal técnico de Euskera, a efectos de su contratación por las entidades firmantes para la cobertura de las necesidades que se produzcan.** La corporación municipal aprobó por unanimidad este punto.

**Moción de urgencia de Contigo Zurekin para destinar al menos el 10% de las plazas del albergue municipal a personas sin hogar durante el invierno.** Sometida a votación la moción de Contigo Zurekin para destinar al menos el 10% de las plazas del albergue (5 plazas) a personas sin hogar durante los meses de diciembre, enero, febrero y marzo y que el coste económico de pernocta y desayuno sea asumido por el Ayuntamiento a través de una partida presupuestaria, fue rechazada por 11 votos en contra (EH Bildu y UPN), 1 voto a favor de Contigo Zurekin y 5 abstenciones de Atarrabia Geroa Bai, PP y PSN.

# Atzera kontua IONGRAF eraisteko

# Cuenta atrás para el derribo de IONGRAF

Construcciones y Excavaciones Erri-Berri S.L.k laster eraitsiko du IONGRAF lantegi zaharra, 321.481,66 euroan, BEZa barne. Otsail bukaeran hasiko dira eraisten eta hiru hilabete inguru beharko dira lana bururatzeko. Aurretik, lurzoruaren gaineko kutsadura azterketa egin behar da. Lanek, ziurrenera, inguru horretako aparkamenduan izanen dute eragina, eta agian zirkulazioan ere bai. Lantegia eraisteko lanak Ekologia Trantsiziorako eta Demografia Erronkarako Ministerioak finantzatuko ditu.
Udala, bestalde, San Andres zubia eraisteko eta zubi berria eraikitzeko behin betiko proiektuaren esperoan dago. Obra beharrezkoa da Ultzama ibaiaren uhaldiek eragiten dituzten uholdeak arintzeko eta inguru horretako segurtasuna hobetzeko. Behin proiektua jasotzen denean, lizitaziora aterako da obraren aurrekontua zenbat den jakiteko.

Construcciones y Excavaciones Erri-Berri S.L. llevará a cabo próximamente el derribo de la nave de la antigua fábrica IONGRAF por un importe de 321.481,66 euros IVA incluido. La demolición comenzará a finales de febrero y llevará unos tres meses. Previamente hay que realizar el análisis de contaminación del suelo. La obra alterará, previsiblemente, el aparcamiento en la zona, e incluso la circulación. Esta intervención está financiada por el Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto demográfico.
Por otro lado, el Ayuntamiento está a la espera de recibir el proyecto definitivo para derribar el puente de San Andrés y construir una nueva infraestructura que sirva para paliar los desbordamientos provocados por las crecidas del río Ultzama y mejorar la seguridad de la zona. Una vez recibido el proyecto, se procederá a su licitación para conocer el presupuesto de la obra.

# OROKORRA | GENERAL

## 2026ko aurrekontua 11.968.811,49 eurokoa da

Udalak, joan den abenduaren 22an, 11.829.470,25 €-ko aurrekontua onetsi zuen 2026rako, 10 boto izan baitziren alde (EH Bildu eta Zurekin-Contigo) 3 kontra (UPN eta PP) eta 4 abstentzio (Atarrabia Geroa Bai eta PSN).

1.076.250 € izanen dira inbertsioetarako, hau da, aurreko urtean baino % 23 gutxiago. Aurrezki gordina 641.564,21 € da, hau da, 255.881,42 €-an murriztu da aurreko urtealdiaren aldean. Arrazoia da, diru-sarrera arruntek eta funtzionamendu gastuek gora jo badute ere, gastuak are gehiago igo direla diru-sarrerak baino (% 3,93 eta % 1,30, hurrenez hurren). Aurrezki gordina positiboa izateak esan nahi du langile gastuak, ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak nahiz transferentzia arruntak diru-sarrera arrunten bidez finantzatzen direla, eta 641.564,21 €-ko aurrezkia geldituko da. Aurrezki gordinaren bidez, iaztik hona % 24,79 igo den finantza-kargari eginen zaio aurre (325.426,56 €); igoera aurreko urteetako amortizazio, interes eta maileguen finantza-gastuei zor zaie. Bestalde, zorpetze muga % 5,73 murriztu da, aurrezki gordina eta garbia murriztu delako (aurrekoa, % 8,12 zen).

Inbertsioen atalean, nabarmentzekoa da 301.000 € bideratuko direla Lorenzo Goicoako pilotalekuko estalkia aldatzeko (Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza: 180.000 €); 135.000 €, Atargi ikastetxeko jostalekua berritzeko (Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza: 90.000 €); 100.000 €, atseden gune zirkular baterako (Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza: 88.312 €); 75.000 €, kiroldegiko pista berritzeko (Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza: 15.000 €); 60.000 €, Indurain Anaiak kiroldegian igogailu bat jartzeko (Nafarroako Gobernuak % 100en finantzatua); 50.000 €, erretiratuen elkarterako; 30.000 €, 2030 Agendako hainbat inbertsiotarako; 30.000 €, hilerrien arteko zelaia egokitzeko; 30.000, Karrobide/Osasun Etxeko eremua urbanizatzeko (Nafarroako Gobernuak % 100en finantzatua); edo 25.000 €, bizikleten aparkaleku estali baterako.

| DIRU-SARRERAK / INGRESOS | 2026 | 2025 | % ALDAKETA / % VARIACIÓN |
|---|---|---|---|
| 1 ZUZENEKO ZERGAK / IMP. DIRECTOS | 3.049.728,57 | 3.048.802,99 | +0.03 % |
| 2 ZEHARKAKO ZERGAK / IMP. INDIRECTOS | 372.578,18 | 350.000,00 | +6,45 % |
| 3 TASAK ETA BESTELAKO DIRU SARRERAK. / TASAS Y OTROS ING. | 1.065.101,00 | 1.118.811,90 | -4,80 % |
| 4 TRANSFERENTZIA ARRUNTAK / TRANSFERENCIAS CTES. | 6.625.391,39 | 6.431.064,90 | +3,02 % |
| 5 ONDAREKO DIRU-SARRERAK / ING. PATRIMONIALES | 85.700 | 106.060,00 | -19,20 % |
| **GUZTIRA, ARRUNTAK / TOTAL CORRIENTES** | **11.198.499,14** | **11.054.739,79** | **+1,30 %** |
| 6 INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA / ENAJENACIÓN INV.REALES | 0,00 | 0,00 | |
| 7 KAPITAL TRANSFERENTZIAK / TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 770.312,35 | 574.730,46 | +34,03 % |
| 8 AKTIBOEN GOITI-BEHEITIAK / VARIACIÓN DE ACTIVOS | 0,00 | 0,00 | |
| 9 PASIBOEN GOITI-BEHEITIAK / VARIACIÓN DE PASIVOS | 0,00 | 200.000,00 | -100 % |
| **GUZTIRA, KAPITALA / TOTAL CAPITAL** | **770.312,35** | **774.730,46** | **- 0,57 %** |
| **GUZTIRA, AURREKONTUA / TOTAL PRESUPUESTO** | **11.968.811,49** | **11.829.470,25** | **1,18 %** |

| GASTUAK / GASTOS | 2026 | 2025 | % VARIACIÓN |
|---|---|---|---|
| 1 LANGILERIA GASTUAK / GASTOS DE PERSONAL | 6.550.176,78 | 6.165.910,18 | +6,23 % |
| 2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA / COMPRA DE BIENES Y SERVICIOS | 2.729.085,99 | 2.781.728,28 | -1,89 % |
| 3 FINANTZA-GASTUAK / GASTOS FINANCIEROS | 69.675,43 | 79.090,15 | -11,90 % |
| 4 TRANSFERENTZIA ARRUNTAK / TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 1.277.672,16 | 1.209.655,70 | -5,62 % |
| **GUZTIRA, ARRUNTAK / TOTAL CORRIENTES** | **10.626.610,36** | **10.236.384,31** | **+3,81 %** |
| 6 INBERTSIO ERREALAK / INVERSIONES REALES | 1.076.250,00 | 1.407.200,00 | -23,52 % |
| 7 KAPITAL TRANSFERENTZIAK / TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 10.200,00 | 4.200,00 | +142,86 % |
| 8 AKTIBOEN GOITI-BEHEITIAK / VARIACIÓN DE ACTIVOS | 0,00 | 0,00 | |
| 9 PASIBOEN GOITI-BEHEITIAK / VARIACIÓN DE PASIVOS | 255.751,13 | 181.685,94 | +40,77 % |
| **GUZTIRA, KAPITALA / TOTAL CAPITAL** | **1.342.201,13** | **1.593.085,94** | **-15,75 %** |
| **GUZTIRA, AURREKONTUA / TOTAL PRESUPUESTO** | **11.968.811,49** | **11.829.470,25** | **1,18 %** |

## El presupuesto de 2026 asciende a 11.968.811,49 euros

El Ayuntamiento aprobó el pasado 22 de diciembre un presupuesto municipal para 2026 de 11.829.470,25 € con 10 votos a favor de EH Bildu y Zurekin-Contigo, 3 en contra de UPN y PP y 4 abstenciones de Atarrabia Geroa Bai y PSN.

Se asigna una partida presupuestaria para inversiones de 1.076.250 €, lo que supone un 23% menos que en el ejercicio anterior). El ahorro bruto asciende a 641.564,21 €, es decir, se reduce en 255.881,42 € respecto al presupuesto anterior. El motivo es que, aunque tanto los ingresos corrientes como los gastos de funcionamiento se incrementan, los últimos lo hacen en mayor medida (3,93% frente a 1,30%). Que el ahorro bruto sea positivo, quiere decir que con los ingresos corrientes se financian los gastos de personal, las compras de bienes corrientes y servicios y las transferencias corrientes, quedando un ahorro de 641.564,21 €. Con este ahorro bruto se podrá hacer frente a la carga financiera (325.426,56 €), que aumenta en un 24,79% respecto al año anterior debido a las amortizaciones, intereses y gastos financieros de préstamos de ejercicios anteriores. Por otro lado, el límite de endeudamiento se reduce a 5,73% debido a la reducción del ahorro bruto y neto (frente al 8,12% anterior).

En el capítulo de inversiones destacan los 301.000 € para sustituir la cubierta del frontón Lorenzo Goicoa (subvención de 180.000 € del Gobierno de Navarra); 135.000 € para la reforma del patio del colegio Atargi (subvención de 90.000 € del Gobierno de Navarra); 100.000 € para área de reposo circular (subvención de 88.312 € del Gobierno de Navarra; 75.000 € para la renovación de la pista del polideportivo (subvención de 15.000 € del Gobierno de Navarra); 60.000 € para un ascensor en el polideportivo Hnos. Induráin, financiado al 100% por el Gobierno de Navarra); 50.000 € para el club de personas jubiladas; 30.000 € para distintas inversiones de la Agenda 2030; 30.000 € para la adaptación de la campa entre cementerios; 30.000 para la urbanización de Karrobide/zona Centro de Salud (financiada al 100% por el Gobierno de Navarra); o 25.000 € para un aparcabici cubierto.

# Taldeek aurrekontuari egindako ekarpenak

# Aportaciones de los grupos al presupuesto

## ATARRABIA-GEROA BAI

- Karrobide urbanizazioa / Osasun Etxeko eremua 30.000 €
- Ultzama aldizkariaren digitalizazioa 2.250 €
- Indurain anaiak pista berritzea 75.000 €
- Euskarazko antzerki jarduerak 7.000 €
- Indurain Anaiak kiroldegiko igogailua (ZUREKINekin batera) 60.000 €

- Urbanización Karrobide / zona Centro de Salud 30.000 €
- Digitalización Revista Ultzama 2.250 €
- Renovación de la pista Hermanos Indurain 75.000 €
- Actividades teatrales en Euskera 7.000 €
- Ascensor del Polideportivo Hnos. Indurain (conjunta con CONTIGO-ZUREKIN) 60.000 €

## CONTIGO-ZUREKIN

- Gaztelekuko jasogailua 25.000 €
- Indurain Anaiak kiroldegiko igogailua (GEROA BAIrekin batera) 60.000 €
- Bantabá 10.000 €
- Ongizate emozionala 8.000 €

- Elevador centro Juvenil 25.000 €
- Ascensor Polideportivo Hnos. Indurain (conjunta con GEROA BAI) 60.000 €
- Bantabá 10.000 €
- Bienestar Emocional 8.000 €

## PSN

- Konstituzio plazaren irisgarritasuna 25.000 €
- Bizikletentzako aparkaleku estaliak 25.000 €
- Bizikletak kargatzeko gunea 25.000 €
- Errege kabalgatako orgen konponketa 4.000 €
- Kilikien urtemuga 500 €

- Accesibilidad Plaza de la Constitución 25.000 €
- Aparcamientos cubiertos para bicicletas 25.000 €
- Punto de recarga de bicicletas 25.000 €
- Arreglo de carrozas cabalgata de Reyes 4.000 €
- Aniversario de los Kilikis 500 €

## PP

- Ondare Immateriala, jaiotzagileak 5.000 €

- Patrimonio Inmaterial Belenistas 5.000 €



# Abian diren eta laster hasiko diren udal obrak

# Obras municipales en curso y de próxima puesta en marcha

Joan den azaroan, Martiket kirol instalazioetako padel pisten eta entrenamendu pisten obrak hasi ziren. Epeak betetzen badira, maiatzean zabalduko dira herritarrendako.

Proiektuaren arabera, bi eraikin estali eraikiko dira, baina biak ere irekiak. Eraikin handienak hiru padel pista izanen ditu, eta txikienak, berriz, hainbat entrenamendu egiteko balioko du (gimnasioa eta crossfit).

Nafarroako Gazteria eta Kirol Institutuak 195.000 €-ko diru-laguntza izenduna eman dio Udalari padel pista estaliak finantzatzeko.

**Datozen obrak**

Hiru enpresa aurkeztu dira klima-aterpe eta atseden-gune berria Nafarroako Gorteak plazan eraikitzeko lehiaketan. Aterpea erromesedendako eta bizilagunendako izanen da. Lanak udaberrian hasiko dira eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso dute, "Suspertze, eraldatze eta erresilientzia plan"aren baitan, Europar Batasuneko Next Generation programaren bidez.

Bestalde, Lacunza enpresak eginen du Atargi ikastetxe publikoko jostalekuko naturalizazioa, lekuak itzal eta landaretza gune handiagoak izan ditzan. Halaber, jolas, esperimentazio eta harreman eremu berriak sortuko dira ikasleentzat. 60 bat egunez arituko dira lanean, heldu den udan.

Era berean, asmoa agertu du Toki Administrazio eta Despopulaziorako Zuzendaritza Nagusiak Lorenzo Goicoa kiroldegiko pilotalekuan dagoen uralita kentzeko, hori guztia Toki Inbertsioetarako Planaren Toki Programazioan diren udal eta kontzejuetako ekipamenduen programaren baitan. Nafarroako Gobernuak, oraingoz, 180.000 € bideratu ditu proiektua gauzatzera. Proiektua, guztira, 301.946,30 € da.

El pasado mes de noviembre comenzaron las obras de las pistas de pádel y de entrenamiento de las instalaciones deportivas de Martiket. Si los plazos se cumplen, se abrirán a la ciudadanía el próximo mes de mayo.

El proyecto contempla la construcción de dos edificaciones cubiertas, pero abiertas. La edificación más grande albergará las tres pistas de pádel, mientras que la de menor dimensión servirá como zona para entrenamientos varios (gimnasio y crossfit).

El Instituto Navarro de Juventud y Deporte ha concedido al Ayuntamiento una subvención nominativa de 195.000 € para financiar estas pistas de pádel cubiertas.

**Próximas obras**

Tres empresas han concurrido al concurso para construir el nuevo refugio climático y área de reposo para peregrinos/as y vecindario previstos en la plaza Cortes de Navarra. Los trabajos, que cuentan con una subvención del Gobierno de Navarra dentro del marco del "Plan de recuperación, transformación y resiliencia-financiado por la Unión Europea-Next generationeu", se iniciarán en primavera.

Por otro lado, la empresa Lacunza será la encargada de llevar a cabo la naturalización del patio del colegio público Atargi, que prevé dotar al patio de más sombra y más vegetación, además de crear nuevas zonas de juego, de experimentación y de relación para el alumnado. La actuación tiene una duración prevista de 60 días y se ejecutará en los meses de verano.

Asimismo, la Dirección General de Administración Local y Despoblación ha incluido de forma provisional la retirada de la cubierta de uralita del frontón polideportivo Lorenzo Goicoa en el programa de dotaciones municipales y concejiles que forman parte de la Programación Local del Plan de Inversiones Locales (PIL). El Gobierno de Navarra ha asignado una aportación provisional de 180.000 € para el proyecto, cuyo coste total asciende a 301.946,30 €.

# Adinik ez boluntariotzan

## Herriko boluntariotza programan parte hartu nahi dutenek erretiratuen elkartearekin jarri behar dute harremanetan

Atarrabiarrek harro esan dezakete gogotik parte hartzen dutela herriko jardueretan eta bizilagunen ongizatean. 2014an, herriaren aldeko ekimenetan burubelarri zebiltzan hainbat bizilagunek boluntariotza programa bat jarri zuten abian bakarrik zeuden pertsonei eta eguneroko bizitzarako laguntza behar zutenei laguntzeko. Hura guztiz arrakastatsua izan zen. Pandemiaren etorrerak, ordea, ekimena geldiarazi, eta boluntariotza zerbitzuan ari zen jende aunitzek utzi egin zuen. Duela bi urte, erretiratuen elkarteak lekukoa hartu eta, gaur egun, 20 lagun dira boluntariotza taldean.

Boluntarioaren lan nagusia adinekoei lagun egitea da, dela medikuarenera, dela erosketak egitera, dela paseatzera, eta aldi baterako, eginkizun hori kentzea haien zaintzaileei, hainbat orduz denbora librea izan dezaten. Gainera, 5 boluntarioko talde bat arduratzen da konponketak egiteaz: argia, pertsianak, sarrailak eta beste.

**Pozgarria boluntarioentzat**

Boluntariotza taldea mantentzen bada ere, azken hilabeteotan batzuek utzi dute eta jendea behar da. Interesdunek erretiratuen elkartera etorri eta orri bat bete beharko dute, boluntariotzan zer egunetan eta ordutan aritu daitezkeen jakiteko, bai eta zer lan egin dezaketen ere (lagun egitea edo konponketak). Garrantzitsua da boluntarioak konpromisoa hartzea egun eta ordu hitzartuetan libre egoteko. Ahalegina egin behar bada ere, merezi du zinez boluntariotzak boluntarioari dakarkion poza. “Pozgarria da jakitea zerbait egiten ari zarela zure bizilagunen alde. Oso esperientzia ona da. Ikusi besterik ez dago zer-nolako irribarrea dakarten boluntarioek, besteendako edozein zeregin egindakoan”, esan digu Luis Enérizek, hau da, duela 10 urtetik hona Atarrabiako erretiratuen elkarteko presidentea denak.

Taldearen funtzionamendua erraza da. Osasun Etxeak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arloak laguntza programaren beharra duten pertsonen eskariak kudeatzen dituzte eta erretiratuen elkartearekin jartzen dira harremanetan. Han, bilera bat egiten dute hilean behin, zer eskari eta premia dauden ikusteko, eta lana boluntarioen artean banatzeko. Ordu libre batzuk badituzu, ez pentsatu gehiago eta zirt-zart, **etorri!**

# El voluntariado no tiene edad

## Las personas que quieran participar en el programa del voluntariado de la localidad deben ponerse en contacto con el Club de personas jubiladas



Si de algo pueden presumir las villavesas y villeses es de su grado de implicación en las actividades del municipio y en el bienestar de su vecindario. En 2014 varias personas que estaban muy involucradas en el pueblo decidieron poner en marcha un programa de voluntariado para ayudar a aquellas personas que estaban solas y necesitaban asistencia en su vida diaria. El proyecto fue todo un éxito, pero la llegada de la pandemia frenó la iniciativa y muchas de las personas que prestaban el servicio de voluntariado lo dejaron. Hace dos años, el club de personas jubiladas tomó el testigo y actualmente 20 personas forman parte del grupo de voluntariado.

La labor principal de la persona voluntaria es el acompañamiento de personas mayores, bien sea al médico, para hacer compras o para pasear y liberar a las personas cuidadoras y permitirles unas horas de tiempo libre. Además, existe un grupo de 5 personas voluntarias que se encarga de hacer arreglos: luz, persianas, cerrojos...

**Gratificación personal y satisfacción**

Aunque el grupo de voluntariado se mantiene, en los últimos meses se han dado de baja algunos miembros y es necesario reforzar el equipo. Las personas interesadas solo tienen que acercarse al club de personas jubiladas y rellenar una ficha con el día y horas que pueden dedicarse al voluntariado y concretar qué labor pueden hacer (acompañamiento o arreglos). Es importante que el voluntario o voluntaria se comprometa a estar disponible los días y horas acordados. Aunque esto supone un pequeño esfuerzo, la gratificación personal que conlleva el voluntariado merece la pena. “Es una satisfacción saber que estás haciendo algo por tus vecinas y vecinos. Es una experiencia muy positiva. Solo hay que ver qué sonrisa traen las personas voluntarias cuando hacen cosas para los demás”, comenta Luis Enériz, presidente del club de personas jubiladas de Villava desde hace 10 años.

El funcionamiento es sencillo. Desde el Centro de Salud y el área de Servicios Sociales del Ayuntamiento gestionan las demandas de las personas que necesitan este programa de acompañamiento y se ponen en contacto con el club de personas jubiladas. Allí hacen una reunión una vez al mes con las demandas y necesidades y se distribuye el trabajo entre las voluntarias y voluntarios. Si tienes unas horas libres, no te lo pienses más. **¡Anímate!**

# Tokiko Poliziaren 2025eko Zerbitzu Karta

2025ean, Tokiko Poliziak bete egin zituen bere Zerbitzu Kartan jasotako helburuak, tratu atseginaren batez besteko balorazioari dagokionez izan ezik, % 85,40 izan baitzen, eta % 90 izatea eskatzen da. Gainerako parametroak hobeagoak izan ziren aurreko urtean baino; bereziki, tramitazio azkarra (% 90,74). Gainera, gutxienez txanda bakoitzeko bi polizia eskura izateko konpromisoa mantentzea lortu zen 365 egunetan.

4.028 abisu eta 4.343 telefono dei kudeatu zituzten, hau da, bietan ere, aurreko urtean baino gehixeago; beraz, agerikoa da telefono deien igoera nabarmena. Nolanahi ere, dei guztiei hiru minutuan baino gutxiagoan erantzun zitzaien; beraz, zerbitzua arina eta eraginkorra izan zen.

Bortxazko egintzek eragindako abisuei dagokienez, 32 kasu izan ziren. 2024an, aldiz, 26. Baina oraindik ere urrun 2022ko 50 kasuetatik. Gehienek borrokekin izan zuten zerikusia eta zaurituri ere izan zen; asko alkoholaren eraginpean.

# Carta de Servicios de la Policía Local de 2025

En 2025 la Policía Local cumplió los objetivos recogidos en su Carta de Servicios, salvo en el caso de la valoración media en *amabilidad en el trato*, que fue un 85,40% frente al 90% exigido. El resto de parámetros mejoró respecto al año anterior, especialmente en la rapidez en la tramitación (90,74%). Además, se consiguió mantener el compromiso de disponer de al menos dos agentes por turno a lo largo de los 365 días.

Gestionó 4.028 avisos y 4.343 llamadas telefónicas. En ambos casos suponen un ligero incremento respecto al año anterior, lo que pone de manifiesto el notable crecimiento de la demanda telefónica. En todo caso, se garantizó el 100 % de atención de llamadas en menos de tres minutos, manteniendo un servicio ágil y eficiente.

En relación con los avisos por hechos violentos, se dieron 32 casos, frente a los 26 en 2024, lejos aún de los 50 registrados en 2022. La mayoría estuvieron relacionados con peleas con personas lesionadas, muchas de ellas bajo los efectos del alcohol.








Atarrabia











## Klima-egokitzapenerako prestakuntza tailerraren edizio berria

## Nueva edición del taller formativo de adaptación climática

Joan den urtarrilaren 14an, 12 lagunek klima-egokitzapenari eta mugikortasunari buruzko prestakuntza tailerra hasi zuten; 8 gizonek eta 4 emakumek, hain zuzen. Tailerrak zortzi hilabete eta erdi iraunen du, eta prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzeaz gain, parte-hartzaileek lana ere egiten dute, % 39ko eta % 61eko proportzioan, hain zuzen ere; bestela esanik, 15 egunez edo hiru astez prestakuntza jasotzen dute eta, ondoren, hilabetez aritzen dira lanean. Horrela, prestakuntza jaso bezain laster, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera dute. Urtarrilean, adibidez, lorezaintzari buruzko eskola teorikoak jaso zituzten 15 egunez eta, otsailean, herriko hainbat tokitako zuhaixkak eta zuhaitzak inausiko dituzte. Martxoan, zoladurari, paseo eremuei eta mugikortasun jasangarriari buruzko eskolak jasoko dituzte hiruzpalau astez eta, hurrengo hilabetean, lanean arituko dira ikasitakoa praktikan jartzeko. Tailerrak apiril amaieraraino iraunen du. Hainbat irizpide erabili dira parte-hartzaileak aukeratzeko, hala nola izangaien inplikazioa eta laneratzen lagunduko dien gremio hau edo hura ezagutzeko interes maila.

El 14 de enero, 12 personas (8 hombres y 4 mujeres) comenzaron el taller formativo de adaptación climática y movilidad. El taller, de ocho meses y medio de duración, combina formación teórico práctica (39%) con trabajo efectivo (61%) de manera alterna, es decir, durante 15 días o 3 semanas reciben formación y, a continuación, tienen un mes de trabajo efectivo. De esta forma, los y las participantes pueden poner en práctica sus conocimientos nada más recibir la formación. En enero recibieron clases teóricas de jardinería durante 15 días y a lo largo del mes de febrero realizarán la poda de arbustos y árboles en distintas zonas de la localidad. En marzo adquirirán conocimientos de pavimentos, zonas de paseo y movilidad sostenible durante 3 o 4 semanas y al mes siguiente pondrán poner en práctica sus habilidades. El taller se prolongará hasta finales de septiembre. La selección del personal se ha realizado atendiendo a la implicación de los y las aspirantes y a su grado de interés para conocer distintos gremios que les ayude a lograr su inserción laboral.

## Paz de Ziganda elkarlanean ari da klima-egokitzapenerako proiektu batean

## Paz de Ziganda colabora en un proyecto de adaptación climática

Udala lankidetzan arituko da Paz de Ziganda ikastolarekin Ezkaba mendia berez birsortzeko proiektu batean. Horrela, otsailaren lehen hamabostaldian, mendi zati bat itxiko da, ikasleek mendian bertan bildutako haziak landatzeko eta, ondoren, nola hazten eta garatzen diren ikusteko. Izan ere, lehengo batean, ikastolako 60 ikasle inguru Ezkaba mendira bertara joan ziren haziak bildu eta aukeratzeko, Udalak gidaturik. Txangoan, Lorategi Botanikoan ibili, bertako espezieak ikusi eta ikasi, eta haziak bildu zituzten, orain ereiteko. Hazi-bonbak erabiliko dira haziak ereiteko, tirabekeen bidez jaurtiak eta barreiatuak. Horrelako bonbak haziek eta buztinak osatuak daude. Behin ereintza egindakoan, ikasleek azterlan bat eginen dute zer espezie eta noiz sustraitzen diren jakiteko.

El Ayuntamiento va a colaborar con la ikastola Paz de Ziganda en un experimento de regeneración natural en el monte Ezkaba. Durante la primera quincena de febrero se va a realizar un cierre forestal para que el alumnado pueda plantar allí algunas semillas recogidas en el propio monte y pueda realizar un seguimiento de su crecimiento y evolución.
La selección de semillas se produjo en una salida al monte Ezkaba guiada por el Ayuntamiento que reunió a más de 60 escolares de la ikastola. Durante la excursión recorrieron el Jardín Botánico, conocieron las distintas especies autóctonas y recolectaron las semillas que sembrarán.
La siembra de semillas se llevará a cabo a través del lanzamiento de bombas de semillas, compuestas de arcilla y semillas, con tirabeques. Una vez sembradas, el alumnado realizará un estudio para identificar qué especies echan raíces y cuándo lo hacen.

## Herriko ikastetxeak, zuhaitzak landatzeko kanpainarekin bat

## Los centros escolares se unen a la campaña de plantación de árboles

Atarrabiako ikastetxeek zuhaitzak landatzeko udal ekimenean parte hartuko dute urtarriletik martxora bitarte. Udalak urtero antolaturik, kanpainaren bidez, gaizki dauden aleak kendu eta zuhaitz berriak landatu nahi dira gure herriko berdeguneak handitzeko. Helburua da ikasleak ohartu daitezela garrantzitsua dela berdeguneak ongi mantentzea, eta zuhaitzek ingurumenari eta osasunari begira ematen dizkiguten onurez kontzientziatzea.
Guztira, 111 zuhaitz landatuko dira: astigarra, basaka, intxaurrondoa, Txinako xaboi-arbola, udareondo apaingarria, japoniar sofora, ezkia eta zugarra.
Paz de Ziganda ikastolak, bestalde, Udalarekin lankidetzan landatuko ditu zuhaitzak, "Oinez Basoa" proiektuaren baitan, Ultzama karrikako zuhaitzak berritze aldera.

Los centros educativos de Villava participarán de enero a marzo en la campaña de plantación de árboles que realiza anualmente el Ayuntamiento para reponer los ejemplares que están en mal estado y plantar nuevos árboles para incrementar las zonas verdes del municipio. El objetivo es que los centros escolares tomen conciencia de la importancia de mantener en buen estado los espacios verdes y de los beneficios ambientales y de salud que aportan los árboles.
En total se plantarán 111 ejemplares de arce, almez, nogal, árbol de los faroles, peral ornamental, sofora, tilo y olmo.
Por su parte, la ikastola Paz de Ziganda va a colaborar con el consistorio en la plantación de árboles con su proyecto "Oinez Basoa", una iniciativa para renovar el arbolado de la calle Ultzama.

# EUSKARA | EUSKERA




# Haurrak D ereduan aurrematrikulatzeko kanpaina

# Campaña de prematriculación en el modelo D

Aurten ere, Nafarroako toki entitateetako euskara zerbitzuek –haien artean Atarrabiako Udalekoak- kanpaina egin dute, gurasoek D eredua (euskarazko irakaskuntza) aukeratu dezaten beren seme-alabendako. Kanpainak, aurten, nabarmendu du oso garrantzitsua dela hezkuntza-ibilbidea bere osoan euskaraz egitea, hau da, hasieratik prestakuntza bukatu arte. Goiburua hauxe da: “Egin zure bidea euskaraz”.

Familiei helarazi zaien mezua da D ereduaren hezkuntza-eskaintza tresna baliosa dela haurrek prestakuntza teknikoa, gizatiarra eta eleanitza jasotzeko, euskara, gaztelania eta ingelesa ikastea bermatzen baitu. D eredua hautatzen duten familiek baliabide sozialak eta birtualak dituzte eskura irakaskuntza eleanitza sustatzeko eta euskara jolasetan eta kultur bidean erabiltzea errazteko, dena hurbiltasunezko ekosistema batean sarturik seme-alaben hezkuntza prozesuan zehar. Baliabide birtual horietako bat **eranafarroa.eus** plataforma digitala da, informazio ugari eskaintzen baitu eskola jarduerez, eskolaz kanpokoez eta kulturalez. Edukiak, gainera, oso erabilgarriak dira familientzat euskaraz ikasteko eta jolasteko orduan.

Aurreko urteetan bezala, hainbat euskarri erabiliko dira kanpaina zabaltzeko, hala nola kartelak, azalpen-orriak eta Udalak hiru urteko haurren gurasoei bidaliko dien gutuna.

Era berean, solasaldiak eta tailerrak antolatuko dira, euskarazko irakaskuntzaren inguruko zalantzak argitzeko eta jarraibideak ere emanen dira gurasoen eta seme-alaben arteko hizkuntza-harremanari buruz.

## 2026-2027 ikasturterako aurrematrikulazioa martxoan izanen da, ziurrenera

## El periodo de prematriculación para el curso 2026-2027 será previsiblemente en marzo

La campaña de prematriculación de los servicios de euskera de las entidades locales navarras, entre ellas el Ayuntamiento de Villava, para animar a la ciudadanía a escoger el modelo D de enseñanza en euskera para sus hijos e hijas, hace hincapié en esta edición en la importancia de recorrer el itinerario educativo completo en euskera desde sus inicios hasta finalizar la formación. El lema es “Recorre tu camino en euskera”.

El mensaje que se quiere hacer llegar a las familias es que la oferta educativa en el modelo D es un instrumento para una formación de carácter técnico, humano y multilingüe que garantiza el aprendizaje de euskera, castellano e inglés. Las familias que opten por el modelo D tienen a su disposición recursos sociales y virtuales que facilitan el aprendizaje multilingüe y el uso del euskera de una forma lúdica y cultural e integrada en un ecosistema de proximidad durante el proceso educativo de sus hijas e hijos. Uno de estos recursos virtuales es la plataforma digital **eranafarroa.eus**, que dispone de una gran cantidad de información sobre actividades escolares, extraescolares y culturales, así como contenidos que resultan muy prácticos para las familias a la hora de aprender y divertirse en euskera.

Como en años anteriores, se apoyará la campaña con carteles, folletos y la carta que el Ayuntamiento envía a las familias con niños y niñas de tres años de la localidad.

También se organizarán charlas y talleres en los que se aclararán dudas sobre la educación en euskera y se darán pautas en cuanto a la relación lingüística entre padres y madres y sus hijos e hijas.

# Korrika martxoaren 22an, igandearekin, iritsiko da Atarrabiara

# El domingo 22 de marzo llegará la Korrika a Villava

Euskararen aldeko 24. herri lasterketa Atharratzetik abiatuko da martxoaren 19an eta, hamaika egunez harat-honat ibili eta gero, Bilbon bukatuko da hilaren 29an, 460 herri gurutzatu ondoren. Ekimena Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) sustatzen du eta aurtengo leloa “Euskara gara” izanen da. Korrikak, aurten, Errigora omenduko du, hau da, euskara Nafarroan ofiziala ez den lurraldeko herri mugimendu bat, elikadura burujabetasunaren, auzolanaren eta euskararen alde diharduena.

Lasterketa martxoaren 22an iritsiko da Atarrabiara (aurreikuspenen arabera, 11:10ean), Arretik, eta Atarrabia gurutzatu ondoren, Txantrea joko du.

Korrikaren app-an eskura duzu nondik nora ibiliko den eta lasterketa denbora errealean jarraitzeko aukera. Horrez gain, Korrikaren inguruan antolatu diren kultur jarduera guztien berri ematen du eta, era berean, nola parte hartu, nola izan laguntzaile, nola erosi online aurtengo edizioaren inguruko materialak, non dauden denda fisikoak, aurtengo abestia entzun, etab.

Korrikaren edizio guztietan bezala, Udalak lasterketako kilometro bat erosiko du.




La 24 carrera popular por el euskera partirá de Atharratze el 19 de marzo y, tras once días de carrera, finalizará en Bilbao el 29 del mismo mes tras pasar por 460 pueblos. En esta edición, el lema elegido por la Coordinadora de Alfabetización y Euskaldunización AEK, organizadora de esta popular iniciativa, es “Euskara gara” y rinde homenaje a Errigora, un movimiento popular de la Navarra en la que el euskara no es oficial que trabaja por la soberanía alimentaria, el trabajo en auzolan y el euskera.

A Villava llegará el día 22 (11:10, hora prevista) procedente de Arre y tras atravesar Villava se dirigirá a la Txantrea.

En la App de la Korrika puedes consultar los lugares de paso y seguir la carrera en tiempo real. Además, la aplicación informa de todas las actividades culturales programadas, de cómo participar y hacerse laguntzaile, comprar *online* materiales en torno a esta edición e informarte de dónde se localizan las tiendas físicas, escuchar la canción de esta edición, etc.

Como en todas las ediciones de la Korrika, el Ayuntamiento adquirirá un Kilómetro de la carrera.

# BERDINTASUNA | IGUALDAD




## M-8 Emakumearen Nazioarteko Eguna

Kultura Zerbitzuak **hiru antzezlan** ekarriko ditu Martxoaren 8aren inguruan gure herrira, martxoaren 6an, 8an eta 13an Kultur Etxeko antzokian emateko. **Hilaren 6an, ostiralarekin**, Teatro Jus La Rotxa taldeak "Las señoritas de Aviñon" taularatuko du **20:00etan**, hots, prostituzio-etxe bateko "maizterren" bizitza eszenaratzen duen komedia kostunbrista bat. Leku horretara joaten diren gizonen mendean dago emakumeen bizitza; ez, ordea, beren desioen mendean. **Hilaren 8an, igandearekin**, Estefanía de Pazek "La Reina del Arga" ekarriko digu **19:30ean**, Remigia Echarren andre funanbulista eta artistaren bizitza azaltzeko. Baina, oroz gain, hura emakume aparta eta ezaguna izan zen XIX. eta XX. mendeen arteko Iruñea hartan. **Hilaren 13an (ostirala), 20:00etatik** aitzina, Puntido Teatro-k "Las Bárbaras" antzeztuko du, hau da, feminismoa ispiluaren aurrean jartzen duen lana, moldeak hautsi eta berdintasunean lehen aurrerapenak lortu zituen emakume belaunaldiaren erretratua egiteko. Egilea bikain mintzo zaigu atzoko eta gaurko feminismoaren arteko talkaz. Era berean, **tailerrak** eginen dira, bai **autodefentsa feministari buruz, bai gazteendako maskulinitate berdinzaleei** buruz. Bestalde, **zine-forum emakumea** programaren baitan, "Las buenas compañías" filma emanen da antzokian, **martxoaren 18an, asteazkenarekin, 19:00etan** hasita. Ondoko solasaldia María Castejónek gidatuko du.

Nafarroako Berdintasun Teknikarien **kanpainak**, izan ere, **feminismoak** historian zehar egindako **ekarpenak** eta lortutako gauzak nabarmendu nahi ditu. Feminismoak gizarteak eraldatu baititu emakumeendako funtsezko eskubideak bultzatuz, hala nola sufragio unibertsala, goi-mailako hezkuntza eskuratzea, eskubide erreproduktiboak, lan berdintasuna eta genero indarkeria badela aitortzea. Egitura patriarkalak desmuntatu ditu, emakumeen autonomia ekonomikoa eta politikoa sustatuz, eta emakumeen eginkizun historikoa eta soziala ikusaraziz.

## 8-M Día Internacional de las Mujeres

El Servicio de Cultura ha programado **tres obras de teatro** en torno al 8 de Marzo para los días 6, 8 y 13 de marzo en el teatro de la Casa de Cultura. El **Viernes 6 a las 20:00** Teatro Jus La Rotxa pondrá en escena "Las señoritas de Aviñon", una comedia costumbrista que pone en escena la vida de las "inquilinas" de un prostíbulo cuya vida depende de la voluntad de los hombres que visitan el lugar y no de sus propios deseos. El **domingo 8 a las 19:30** Estefanía de Paz nos traerá "La Reina del Arga", la historia de Remigia Echarren, funambulista y artista, pero, sobre todo, una mujer excepcional conocida en la Pamplona de entre siglos XIX y XX. El **viernes 13 de marzo a las 20:00** Puntido Teatro pondrá en escena "Las Bárbaras", un montaje que pone al feminismo frente al espejo, retratando a la generación de mujeres que rompió moldes y consiguió los primeros avances en igualdad. La autora nos habla con maestría del choque entre el feminismo de ayer y el de hoy. También se van a realizar **talleres de autodefensa feminista y masculinidades igualitarias para jóvenes**. Dentro del programa **Cinefórum Mujer**, el **miércoles 18 a las 19:00** se proyectará en el teatro "Las buenas compañías", con diálogo posterior dinamizado por María Castejón.

La **campaña** del grupo de Técnicas de Igualdad de Navarra pone el acento en las aportaciones y **logros del feminismo** a lo largo de la historia. Ha transformado sociedades al impulsar derechos fundamentales para las mujeres, como el sufragio universal, el acceso a la educación superior, derechos reproductivos, igualdad laboral y el reconocimiento de la violencia de género. Ha desmontado estructuras patriarcales, promoviendo la autonomía económica y política de las mujeres, y visibilizando su papel histórico y social.




## Berdintasun Zerbitzuaren ikastaro berriak

## Nuevos cursos ofertados por el Servicio de Igualdad

Otsailaren 26an **irakurle talde** berri bat hasiko da Kultur Etxean; gune egokia, betaurreko moreekin irakurtzen jarraitzeko. Honako liburu eta idazle hauek aukeratu dituzte: "La campana de cristal", Sylvia Plath (otsailak 26); "Estamos todas bien", Ana Penyas (martxoak 26); eta "Beloved", Toni Morrison (apirilak 23, Liburuaren Eguna). Saioak 19:00etatik 21:00etara izanen dira, Nerea Aguado Alonsok dinamizatuak. Nerea aditua da genero ikuspegia hitzarekin, hizkerarekin (ahozkoa, idatzia eta ikusizkoa) eta komunikazioarekin lotura duten esparru guztietan sartzeko orduan. Irakurle klubeko lehen taldea 2023an sortu zen eta ikusirik hain harrera ona izan duela (hileko hirugarren asteazkenetan elkartzen da), orain lau edizio egin diren honetan, Berdintasun Zerbitzuak bigarren taldea jarri du abian (2,0 taldea). Lehen irakurgaia Sylvia Plath-en lana da. Lehen taldeak liburu hori ere landu zuen, eta izan zen zer esana eta zer iruzkindua.

Kultur Etxean, halaber **GU-NOSOTRAS 2.0. Gure ahotsa eta eusten diguten ahotsak** izenburuko ikastaroa eginen da urtarriletik apirilera bitarteko 11 ostiraletan, 18 urtetik gorako emakumeentzat. Jarduerak emakumeen ongizate emozionalean eta osasun mentalean jarriko du arreta. Ana Beaumont psikologo sistemikoa da tailerraren arduraduna.

Martiketen, bestalde, **Tai Chi Chikung** tailerra ematen ari da 18 urtetik gorako emakumeentzat, emakumeen osasun fisikoa, psikologikoa eta emozionala prebenitu, indartu eta hobetzeko. Olga Navarro Cía da emailea, Chi Kung eta Tai Ji-ko I. mailako monitore nazionala eta Taiji Ji-ko gerriko beltza 1. DAN mailakoa. Otsailetik apirilera bitarteko 9 asteazkenetan emanen da.

Begiratu lekurik ote dagoen. Horretarako, jo Berdintasun Zerbitzuko helbidera (**igualdad-mujer@villava.es**).

El 26 de febrero arranca en la Casa de Cultura un nuevo **Club de lectura**, un espacio para seguir leyendo con *gafas lilas*. Las lecturas elegidas son "La campana de cristal", de Sylvia Plath (26 de febrero); "Estamos todas bien", de Ana Penyas (26 de marzo); y "Beloved", de Toni Morrison (23 de abril, Día del libro). Las sesiones son de 19:00 a 21:00, dinamizadas por Nerea Aguado Alonso, experta en la incorporación de la perspectiva de género en todos los ámbitos relacionados con la palabra, el lenguaje (oral, escrito y visual) y la comunicación. El primer grupo del Club de Lectura nació en 2023 con tan buena acogida tras sus cuatro ediciones (se reúne los terceros miércoles de mes), que el Servicio de Igualdad ha puesto en marcha un segundo grupo, el 2.0, que arranca con la obra de Plath, una lectura que ya trabajó el primer grupo y que provocó mucha conversación y comentarios.

La Casa de Cultura acoge también a lo largo de 11 viernes de enero a abril un curso titulado **GU-NOSOTRAS 2.0. Nuestra voz y las voces que nos sostienen** dirigido a mujeres de más de 18 años. Esta actividad pone el foco en el bienestar emocional y la salud mental de las mujeres. Ana Beaumont, psicóloga sistémica, es la responsable del taller.

En el complejo Martiket, por su parte, se está impartiendo un taller de **Tai Chi Chikung** dirigido a mujeres de más de 18 años cuyo objetivo es prevenir, fortalecer y mejorar la salud física, psicológica y emocional de las mujeres. Lo imparte Olga Navarro Cía, Monitora Nacional de Nivel I de Chi Kung y Tai Chi y Cinturón negro 1er DAN de Taichi Chi y se desarrolla a lo largo de 9 miércoles de febrero a abril.

Consulta la disponibilidad de plazas libres en el Servicio de Igualdad (**igualdad-mujer@villava.es**).

# KULTURA | CULTURA

## Bisita gidatua "Karlos III.a Nafarroakoa, gobernu onaren erregea (1387-1425)" erakusketa ikusteko

CARLOS III
1425-2025

## Visita guiada a la exposición "Carlos III de Navarra, el rey del buen gobierno (1387-1425)"

BISITA **MARTXOAREN 5ean** EGINEN DA, 11:30etik 12:30era, NAFARROAKO ERREGE ARTXIBO NAGUSIAN. ALDEZ AURRETIK, **PLAZA ESKATU BEHAR** DA OTSAILAREN 16tik AURRERA (ASTELEHENA), 16:00etatik 21:00etara, KULTUR ETXEAN

**Erakusketak hiru atal ditu: Karlos III.aren figura, erresumaren egoera eta haren ondareari buruzko gogoeta**

LA VISITA AL ARCHIVO REAL Y GENERAL DE NAVARRA, SEDE DE LA MUESTRA, SERÁ EL **5 DE MARZO** DE 11:30 A 12:30, **PREVIA SOLICITUD DE PLAZA** A PARTIR DEL LUNES 16 DE FEBRERO DE 16:00 A 21:00 EN LA CASA DE CULTURA

**Lehen atalean**, Karlosen figura ageri da; erregearen bizitzaren zenbait alderdi eta une, zehazki. Atal honetan, hiru pieza nabarmen daude: batetik, harrizko bi irudi handi, lehenago Erriberriko jauregian zeudenak, erakusketarako Nafarroako Museotik propio ekarritakoak. Bestetik, Ingalaterrako errege-erreginen koroatzearen, azken igurtziaren eta hileten agiria, nafar erregearen beraren koroatzearen aktarekin batera ikusgai jarria.

**Bigarren atalean**, erresumaren egoera dago azaldua Karlos III.aren erresuman, hainbat agiriren bidez: haien artean daude Iruñeko Burguak Batzeko Pribilegioa, Lizarrako Udal Ordenantzak edota juduen ketubah deritzon ezkontza agiri bat. Era berean, arkeologia aztarnak daude ikusgai, bai Lizarrako judutegikoak, bai Tuterako maqbara musulmanekoak, edota Puyko Andre Maria zaintzeko sortu zen armairua.

Erakusketaren atal honetan bereziki da nabarmentzekoa Karlos III.aren figuraren inguruan bizi izandako emakumeei eskainitako zatia, eta emakumeek garai hartako botere giroetan izandako protagonismoari eskaini zaion tartea.

Azkenik, **hirugarren atalean**, Karlos III.aren gaineko oroimenak mendez mende gaur eguneraino izan duen iraupena dago bildua. Bertan, erregearen bigarren testamentua dago ikusgai, beraren azken borondateak jasotzen dituena, eta Karlosen erregealdian Nafarroako artea bete zuten Nafarroako Evreuxtarren irudikapen heraldikoak.




**La exposición está dividida en tres bloques temáticos: la figura de Carlos III, la situación del reino y una reflexión sobre su legado**

En el **primer bloque** se aborda la figura de Carlos desde varios prismas y momentos de su vida. Piezas destacables en esta parte del recorrido son dos imponentes figuras de piedra procedentes del Palacio Real de Olite / Erriberri, trasladadas desde el Museo de Navarra para la ocasión, o el Ceremonial de coronación, unción y exequias de los reyes de Inglaterra, que se expone junto al acta de coronación del propio monarca navarro.

En el **segundo bloque** la situación del reino durante el reinado de Carlos III, a través de documentos como el Privilegio de la Unión de los Burgos de Pamplona, las Ordenanzas Municipales de Estella o una ketubah matrimonial judía. También se podrán contemplar restos arqueológicos procedentes tanto de la judería de Estella-Lizarra como de la maqbara musulmana de Tudela, o el armario creado para custodiar la Virgen del Puy.

Es especialmente destacable en esta parte de la exposición el apartado dedicado al recorrido de las mujeres que rodearon la figura de Carlos III, y al protagonismo femenino en los círculos de poder de esta época.

Finalmente, en el **tercer bloque**, la exposición culmina con la perduración de Carlos III en los siglos posteriores hasta la actualidad. Ahí se expone el segundo de sus testamentos, que recoge sus últimas voluntades, y testimonios de representaciones heráldicas de los Navarra-Evreux que poblaron el arte navarro durante su reinado.


Solidus
Tecnología e innovación

# KULTURA | CULTURA

## Kulturak bat egin du Martxoaren 8arekin, Emakumearen Nazioarteko Egunarekin, hiru ikuskizunen bidez

### Hitzorduak Kultur Etxeko antzokian, martxoaren 6an, 8an eta 13an

## Cultura se suma al 8 de marzo, Día Internacional de la Mujer, con tres espectáculos

### Citas en el teatro de la Casa de Cultura los días 6, 8 y 13




**ANTZERKIA**
**"Las señoritas de Aviñon"**
**TEATRO JUS LA ROTXA**
**Kultur Etxeko antzokia**
**Martxoak 6, ostirala, 20:00, 4 €**

Komedia kostunbrista honek prostituzio-etxe bateko "maizterren" bizitza eszenaratzen du; haien bizitza, izan ere, leku hori bisitatzen duten gizonen borondatearen mendean dago; ez, ordea, beren desioen mendean. Zoriontasuna egoera korapilatsuan nola bila daitekeen lantzen du. Istorioa XX. mendearen hasierako gizartean dago girotua, eta Pablo Picasso ageri da pintore hasitako garaian. Prostituzio-etxe horren bisitaria izanik eta, Aviñón kaleko "andereño" horiek inspiraturik, haien bizitza eta frustrazioak erretratatzen ditu.

**TEATRO**
**"Las señoritas de Aviñon"**
**TEATRO JUS LA ROTXA**
**Teatro de la Casa de Cultura**
**Viernes 6 de marzo, 20:00, 4 €**

Comedia costumbrista que pone en escena la vida de las "inquilinas" de un prostíbulo cuya vida depende de la voluntad de los hombres que visitan el lugar y no de sus propios deseos. Aborda la búsqueda de la felicidad en un contexto complicado. La historia se ambienta en la sociedad de principios del siglo XX, con la presencia de un Pablo Picasso en sus comienzos como pintor. Visitante del prostíbulo e inspirado por estas "señoritas" de la calle Aviñón, retrata sus vidas y frustraciones.



**ANTZERKIA**
**"La Reina del Arga"**
**ESTEFANÍA DE PAZ**
**Kultur Etxeko antzokia**
**Martxoak 8, igandea, 19:30, 6 €**

Remigia Etxarren funanbulista eta artista izan zen, emakume aparta, Iruñean ezaguna XIX. eta XX. mendeen artean. Baina, nor izan zen egiazki *Argako Erregina* edo *Maromaren Erregina* esaten zioten emakume hura? Remigiaren heriotzaren mendeurrena bete den honetan, Estefanía de Pazek kontatuko digu zer jakin duen hari buruz. Haren historiak liluraturik, bila eta bila arituz, haren izena eta izana aurkitu ditu. Horri esker, emakume zoragarri hura nor izan zen ezagutzen lagunduko digu ikuskizun fin honen bidez.

**TEATRO**
**"La Reina del Arga"**
**ESTEFANÍA DE PAZ**
**Teatro de la Casa de Cultura**
**Domingo 8 de marzo, 19:30, 6 €**

Remigia Echarren fue funambulista y artista, una mujer excepcional conocida en la Pamplona de entre siglos XIX y XX. Pero, ¿Quién fue realmente esta mujer que se ganó el sobrenombre de *La Reina del Arga* o *La Reina de la maroma*?
Estefanía de Paz, nos cuenta, ahora que se cumplen 100 años de su muerte, lo que ha averiguado sobre ella. Fascinada por su historia, ha buscado hasta encontrar, para ayudarnos a conocer a esta increíble mujer y contárnoslo en este delicado espectáculo.




**ANTZERKIA**
**"Las Bárbaras"**
**PUNTIDO TEATRO**
**Kultur Etxeko antzokia**
**Martxoak 13, ostirala, 20:00, 4 €**

Antzezlan honek ispiluaren aurrean jartzen du feminismoa, moldeak hautsi eta berdintasunean lehen aurrerapausoak eman zituen emakume belaunaldi haren erretratua eginez. Egilea bikain mintzo zaigu atzoko eta egungo feminismoaren arteko talkaz. Nola egin bateragarri iraganeko lorpenak eta egungo eskariak? Lanak zintzotasuna, umorea eta lagun giroko digresioak uztartzen ditu kantu eta kopen artean...

**TEATRO**
**"Las Bárbaras"**
**PUNTIDO TEATRO**
**Teatro de la Casa de Cultura**
**Viernes 13 de marzo, 20:00, 4 €**

Este montaje teatral pone al feminismo frente al espejo, retratando a la generación de mujeres que rompió moldes y consiguió los primeros avances en igualdad. La autora nos habla con maestría del choque entre el feminismo de ayer y el de hoy. ¿Cómo reconciliar los logros del pasado con las demandas del presente? La obra aúna sinceridad, humor y disquisiciones amistosas entre canciones y copas...



## Pintura tailerra desgaitasun intelektuala duten pertsonendako

## Taller de pintura para personas con discapacidad intelectual

**APIRILAREN 7an, 8an, 9an ETA 10ean, 10:30etik 12:30era.** Arte praktika honen arabera, terapeutikoa da pintura, bai eta adierazpen pertsonalerako bidea ere; aproposa, beraz, inklusioa eta autoestimua sustatzeko.
Desgaitasun intelektuala duen 16 urtetik gorako jendearentzat da. Apirilaren 7tik 10era eginen da, lau egunez, 10:30etik 12:30era. Emailea Isabel García irakaslea izanen da.
Matrikula doakoa da, baina aurrez izena eman beharra dago, dela Kultur Etxeko atezaindegian, 10:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera, dela mezua cultura@villava.es helbidera bidaliz.

**LOS DÍAS 7, 8, 9 y 10 DE ABRIL, DE 10:30 A 12:30.** Este taller es un espacio de práctica artística que considera que la pintura es terapéutica y un vehículo de expresión personal que fomenta la inclusión y la autoestima.
Está dirigido a personas a partir de 16 años con discapacidad intectual y se desarrollará los días 7, 8, 9 y 10 de abril, de 10:30 a 12:30. Lo imparte la profesora Isabel García.
La matrícula es gratuita, pero hay que inscribirse previamente, bien en la conserjería de la Casa de Cultura de 10:00 a 21:00, de lunes a viernes, bien enviando un correo a cultura@villava.es.

# "52 hercios", alde askotako begirada aukeratu gabeko bakardadearen gainean



# "52 hercios", una mirada poliédrica sobre la soledad no deseada

**OTSAILAK 15, IGANDEA, 19:30, ANTZOKIA (6 €).** Diotenez, ba omen da ozeanoan barna bakarka igeri egiten doan balea bat, eta beste ezein balearik sumatzen ez duen frekuentzia batean emititzen du. Irudi poetiko horretatik abiatuta, antzezlana isolamendu sozialaz, inkomunikazioaz, desberdintasunaz eta entzuna izateko desioaz mintzo zaigu. Umorez, emozioz eta eszenaratze zaindu baten bidez, lanak belarria eta bihotza zolitzera gonbidatzen gaitu.
Ados Teatroa aukeratu gabeko bakardadera hurbildu da, arazoa gero eta gehiago zabaltzen ari den honetan. Egiazko testigantzetatik abiatu bada ere, ez da lekukotasun lan hutsa eta ez ditu kasu zehatzak erakusten. Ez da istorio solteen gaineko emanaldia, lanketa dramatikoa egin baita eta, ondorioz, istorioak *bizitza gurutzatuen* antzera harilkatzen joaten dira, batzuek besteetan eraginez, gainerakoen arku dramatikoa marrazten lagunduta.

**15 DE FEBRERO, DOMINGO, 19:30, TEATRO (6 €).** Dicen que hay una ballena que nada sola por el océano, emitiendo una frecuencia que no escuchan las otras ballenas. A partir de esta imagen poética, "52 hercios" nos habla del aislamiento social, de la incomunicación, la diferencia y el deseo de ser escuchada. Con humor, emoción y una cuidada puesta en escena, la obra nos invita a afinar el oído y el corazón.
Ados Teatroa se acerca al problema creciente de la soledad no deseada a partir de testimonios reales, aunque no es directamente testimonial ni refleja casos concretos. No es una función de historias sueltas, sino que hay una elaboración dramática que hace que esas historias se vayan entrelazando en una especie de *vidas cruzadas*, en las que unas influyen en otras, contribuyendo a dibujar el arco dramático del resto.

# Hitzarmenak arte erakundeekin

**EPEA OTSAILAREN 13an BUKATUKO DA.** Herriko arte erakunde egonkorrek egin dezakete hitzarmena udalarekin, udaleko Kultura Zerbitzurako egiten diren ekitaldiak arautze aldera. Hitzarmenek laguntza-dirulaguntza tankera dute eta herriko musika eta arte erakundeei laguntzeko modu bat dira, gure herriko kultura garatzen laguntzen dutelako. Oinarriak eskuragarri daude Kultur Etxean, Herritarrak Hartzeko Bulegoan eta www.villava.es webean.

# Convenios con entidades artísticas

**EL PLAZO FINALIZA EL 13 DE FEBRERO.** Pueden acogerse a estos convenios, que regulan las actuaciones que realicen en 2026 para el Servicio Municipal de Cultura, las entidades artísticas estables de Villava. Los convenios tienen un carácter de ayuda-subvención, y son una forma de apoyo a las entidades musicales y artísticas locales que contribuyen al desarrollo de la cultura de Villava. Las bases están disponibles en la Casa de Cultura, en la Oficina de Atención Ciudadana y en www.villava.es.

# Elkarteendako laguntzak

**ESKAERA EPEA OTSAILAREN 27an BUKATUKO DA.** 2026an kultur proiektuak eta jarduerak eginen dituzten elkarteek eska ditzakete laguntzak. Helburua baita elkarteek Atarrabiako kultur garapenean are gehiago parte hartzea eta jarduera sozio- kulturalak sustatzea. Oinarriak eskuragarri daude Kultur Etxean, Herritarrak Hartzeko Bulegoan eta www.villava.es webean.

# Ayudas a asociaciones

**EL PLAZO DE SOLICITUD FINALIZA EL 27 DE FEBRERO.** Pueden acogerse a estas ayudas las asociaciones locales que realicen a lo largo de 2026 proyectos y actividades culturales. El objetivo es promover la participación de las asociaciones en el desarrollo cultural de Villava y potenciar la realización de actividades socio-culturales.
Las bases están disponibles en la Casa de Cultura, en la Oficina de Atención Ciudadana y en www.villava.es

# Irakurzaletasuna sustatzeko ekimena ikastetxeetan




Aurten ere, Atarrabiako Udalak dirulaguntza emanen die ikastetxeei Iruñerrian irakurzaletasuna sustatzeko egiten den ekimenean parte har dezaten. Ekimena Fira Hezkuntza erakundeak kudeatzen du. Hortaz, Lorenzo Goicoa, Atargi, Pedro de Atarrabia, La Presentación eta Paz de Ziganda ikastola arituko dira. Helburua da egungo ikasleak etorkizuneko herritar irakurleak izatea. Irakasleendako prestakuntzaz gain, urtarriletik maiatzera sei idazlek (**Violeta Monreal, Joan Manuel Gisbert, Nerea Loiola, Miren Asiain** eta **Miren Agur Meabe**) topaketak eginen dituzte ikasleekin, eta ahozko lau narratzailek ere bai (**Cristina Verbena, Oswaldo, Aitor Vinagret** eta **Ameli**). Irakasle talde bakoitzak nahi dituen aukerak aukeratzen ditu bere ikastetxerako.
Ekimenaren osagarri, CALCO aldizkariaren 29. zenbakia banatuko da. Aldizkarian, zer irakurri gomendatzen zaie haur eta gazteei (ikastetxeetan eta Kultur Etxeko liburutegian dago eskura, bai eta formatu digitalean ere: www.firaeducacion.com

# Animación a la lectura en centros escolares

Un año más el Ayuntamiento de Villava financia la participación de Lorenzo Goicoa, Atargi, Pedro de Atarrabia, La Presentación y Paz de Ziganda en el programa de Animación a la lectura en la comarca de Pamplona que gestiona Fira Educación. El objetivo es que el alumnado de hoy sea ciudadanía lectora mañana. Además de formación dirigida al profesorado, entre enero y mayo seis escritoras y escritores (**Violeta Monreal, Joan Manuel Gisbert, Nerea Loiola, Miren Asiain** y **Miren Agur Meabe**) participarán en encuentros con alumnado; así como cuatro narradores y narradoras orales (**Cristina Verbena, Oswaldo, Aitor Vinagret** y **Ameli**). Cada equipo docente elige las opciones para su centro.
El programa se complementa con la distribución del número 29 de la revista CALCO, que contiene recomendaciones de lecturas para niños y niñas y jóvenes (disponible en los centros escolares, en la Biblioteca de la Casa de Cultura y en formato digital en la web www.firaeducacion.com



IZEN-EMATEA
MARTXOAREN
2tik 13ra
948 012 012n

INSCRIPCIONES,
DEL 2 AL 13 DE
MARZO EN EL
948 012 012

## MARTXOAK 14
## Ultzama ibaia eta Ezkaba mendia garbitzeko auzolana

Martxoaren 14an udaberriko auzolana eginen da Ultzama ibaia eta Ezkaba mendiaren magala garbitzeko, Udalak San Andres erretiratuen elkarteko boluntarioekin batera antolaturik, eta Iruñerriko Mankomunitateak lagundurik.
Auzolana goizeko **9:30**ean hasiko da Martiket zubiaren ondoan; **9:30**etik **12:00**etara Ultzama ibaiaren eta Ezkaba mendiaren garbiketa; **12:00**etan, hamabitakoa; eta **12:30**ean, tailerrak eta ibilbidea txalupan Ultzama ibaian barna.

## 14 de MARZO
## Auzolan de limpieza del río Ultzama y del monte Ezkaba

El 14 de marzo tendrá lugar una nueva edición del auzolan de primavera para limpiar el río Ultzama y la ladera del monte Ezkaba, organizado por el Ayuntamiento junto al grupo de voluntarios/as del Club de personas jubiladas San Andrés y con la colaboración de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona.
La jornada comenzará a las **9:30** junto al puente de Martiket. De **9:30 a 12:00**, limpieza del río Ultzama y monte Ezkaba; **12:00**, almuerzo; y a las **12:30**, talleres y recorrido en barca por el río Ultzama.

## Gazte proiektuendako dirulaguntzak

Zabalik dago elkarteek, taldeek eta gazteek dirulaguntza eskatzeko epea beren gazte arloko proiektu eta ekimenak aurrera ateratzeko. Izan ere, 16 eta 30 urte artekoa bazara, eta herriko gazteendako proiekturik edo ekimenik baduzu eta huraxe martxan jarri nahi baduzu, aurkeztu zure proposamena. Aurten, guztira, 2.814 euro banatuko dira.
Proiektuak Herritarrak Hartzeko Bulegoan aurkeztu behar dira (udaletxeko behe solairuan), datorren **martxoaren 20ra arte**. Begiratu deialdiaren oinarriak **www.villava.es** udal webean eta jaso argibidea, Gaztelekun.

## Subvenciones para proyectos juveniles

Ya está abierto el plazo para que asociaciones, colectivos y jóvenes soliciten una subvención para sacar adelante sus proyectos e iniciativas juveniles. Si tienes entre 16 y 30 años y tienes un proyecto o una iniciativa dirigida a jóvenes de la localidad que quieras poner en marcha, presenta tu propuesta. Este año el presupuesto total de la convocatoria asciende a 2.814 euros.
Los proyectos podrán presentarse en la Oficina de Atención Ciudadana (bajo del Ayuntamiento) **hasta el próximo 20 de marzo**. Consulta las bases de la convocatoria en la web municipal **www.villava.es** e infórmate en el Gazteleku.



## Ikastaroa: lehen sorospenak / Curso de Primeros auxilios

Gazteria arloko hezkuntza taldeak hiru orduko prestakuntza jaso zuen joan den urtarrilaren 20an lehen sorospenei buruz, Osasun Etxeak emanik. Emaileak, zehazki, Beatriz Hernández Armendáriz erizain pediatrikoa, Elvira López Mardones helduen erizaina eta Mara Caballero Ansorena izan ziren, azken hori Osasun Etxean praktiketan ari den erizaintzako 4. mailako ikaslea.

El equipo educativo del Área de Juventud recibió el 20 de enero una formación de tres horas en primeros auxilios impartida por el Centro de Salud, en concreto por Beatriz Hernández Armendáriz, enfermera pediátrica, Elvira López Mardo- nes, enfermera de adultos y Mara Caballero Ansorena, estudiante de 4º de enfermería en prácticas en el Centro de salud.


**Anúnciate en el Boletín de información municipal de Villava**

948 13 67 66
4.400 ejemplares / ale
PERIODICIDAD/MAIZTASUNA: bimestral / bi hilabetekoa

**Zure iragarkia Atarrabiako udal informazio aldizkarian**




**alfatarrabia**
Mantenimientos y Eficiencia Energética

**INSTALACION DE PLACAS SOLARES**
**PUNTOS DE RECARGA COCHE ELECTRICO**
VIVIENDAS – COMUNIDADES – EMPRESAS
ESTUDIO PERSONALIZADO SIN COMPROMISO
**TE AYUDAMOS A TRAMITAR LAS SUBVENCIONES**
AYUDA AL PLANETA – PAGA MENOS
**Travesía Karrobide 3, Bajo – Villava/Atarrabia**
**948593834 – 648471140 - LLAMANOS**

# Sex Buzoia ekimenaren jarduerak

Paz de Ziganda ikastolan, Gaztelekun eta Kultur Etxeko sarreran ikusgai egon ondoren, Sex Buzoia ekimenaren erakusketa **Osasun Etxean** dago orain ikusgai **otsail osorako**. Sexualitatea gazteen artean sustatu nahirik, erakusketak ekimenaren ibilbidea ekarri du gogora informazio panelen bidez, begirada etorkizunean ere jarrita, eta informazio buletin berriak ere badaude ikusgai. Sex Buzoia programak, bestalde, hainbat jarduera antolatu ditu; guztiak ere sare sozialen bidez zabalduko dira (Gaztelekuko instagram) eta, haietan ere, albisteak, buletinak eta gazteek egiten dituzten galderei emandako erantzunak argitaratzen dira.

# Actividades del Programa Sex Buzoia





Tras su paso por la ikastola Paz de Ziganda, el Gazteleku y el hall de la Casa de Cultura, la exposición del programa Sex Buzoia se ha trasladado al **Centro de Salud**, donde se podrá visitar **durante el mes de febrero**. La exposición, que busca promover la salud sexual entre la juventud, aborda a través de paneles informativos la trayectoria del programa con una mirada puesta en el futuro, y presenta sus nuevos boletines informativos.
Por otro lado, el programa Sex Buzoia ha organizado varias actividades que se darán a conocer próximamente a través de las redes sociales (Instagram del Gazteleku), donde también se cuelgan las novedades, boletines y respuestas a preguntas formuladas por las y los jóvenes.

# Gazte elkarteekiko hitzarmenak berritu dira

# Renovación de los convenios con asociaciones juveniles

Udalak erabakirik, hitzarmena berrituko da gazte arloan lehentasunez diharduen herriko elkartearekin. Atarrabiako Gazteak.com/Jóvenes de Villava.com elkartea da, **Atarrabiako Gazte Kontseilua**, alegia. Halaber, **Scout San Andrés** taldearekiko hitzarmena berrituko da.
Atarrabiako Gazteak.com / Jóvenes de Villava.com elkarteak 7.819 euro jasoko ditu 2026rako, eta Scout San Andrés taldeak 3.607 euro jarduerak egiteko.

El Ayuntamiento ha aprobado la renovación de los convenios con la asociación preferente en materia de juventud Atarrabiako Gazteak.com/Jóvenes de Villava.com, más conocida como **Consejo de la Juventud de Villava/Atarrabiako Gazte Kontseilua**, y con el grupo **Scout San Andrés**.
La asociación Atarrabiako Gazteak.com / Jóvenes de Villava.com recibirá una asignación económica de 7.819 euros para 2026, y el grupo Scout San Andrés, 3.607 euros para la realización de actividades.






# GAZTERIA | JUVENTUD

## JARDUERAK
### Hiru Herri 2026
**ATARRABIA, UHARTE ETA BURLATA**

**IRAUPEN ESKIA LARRA-BELAGUAN**
**Noiz:** martxoak, 7
**Irteera:** 8:00, Kateetako geralekutik
**Nor:** 12-30 urte (1996 – 2003 artean jaiotakoak)
**Prezioa:** 20 € (sarrera pistara, material alokairua, joan-etorria autobusez); edo 15 € (sarrera pistara eta joan-etorria autobusez)
**Izen-ematea:** otsailaren 16tik 23ra 948 012 012n edo www.villava.es

**IRISARRI LAND**
**Noiz:** apirilak 10
**Nor:** 12-30 años (1996-2003 artean jaiotakoak)
**Izen-ematea:** martxoaren 9tik 16ra 948 012 012n edo www.villava.es

**URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBA**
Biosfera Erreserba bisitatzea. Urdaibai jaitsiera + Lagako hondartza
**Noiz:** maiatzak 9
**Izen-ematea:** apirilaren 20tik 27ra

**ETA UDAN...**
**Aquopolis Villanueva de la cañada (Madril) eta Portaventura World (Vilaseca)**

## ACTIVIDADES
### Hiru Herri 2026
**VILLAVA, HUARTE Y BURLADA**

**ESQUÍ DE FONDO EN LARRA-BELAGUA**
**Noiz:** martxoak, 7
**Salida:** 8:00, desde la parada de Las Cadenas
**Nor:** 12-30 años (nacidos/as entre 1996 y 2003)
**Prezioa:** 20 € (entrada a la pista, alquiler de material, desplazamiento en autobús); ó 15 € (entrada a la pista y desplazamiento en autobús)
**Izen-ematea:** del 16 al 23 de febrero

**IRISARRI LAND**
**Noiz:** apirilak 10
**Nor:** 12-30 años (nacidos/as entre 1996 y 2003)

**Izen-ematea:** del 9 al 16 de marzo en el 948 012 012 o en www.villava.es

**RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI**
Visita a la Reserva de la Biosfera. Descenso Urdaibai + playa de Laga
**Noiz:** maiatzak 9
**Izen-ematea:** del 20 al 27 de abril

**Y EN VERANO...**
**Aquopolis Villanueva de la Cañada (Madrid) y PortAventura World (Vilaseca)**



## Eskia Candanchún
Burlata, Uharte eta Atarrabiako Udalek ateraldia antolatu zuten Candanchúko eski estaziora, joan den urtarrilaren 24an. Hura 3 Herri ekimeneko lehen jarduera izan da. Guztira, 16-30 urte arteko 50 gazte (18, Atarrabiakoak) aritu ziren eskiatzen. Batzuk eski alpinoan eta, beste batzuk, berriz, snowboard modalitatean.

## Esquí en Candanchú
Los Ayuntamientos de Burlada, Huarte y Villava arrancaron su programa de actividades 3 Herri de 2026 con una salida a la estación de esquí de Candanchú el pasado 24 de enero. Un total de 50 jóvenes de entre 16 y 30 años, 18 de Villava) disfrutaron durante la jornada de la práctica del esquí en una de sus dos modalidades (snowboard y esquí alpino).



## Gozatu igande arratsaldeak
Joan den abenduan, 12-17 urteko gazteendako aisia programa berria jarri zen abian, igandeetan aisia jarduerak eskaintzeko Gaztelekun, **17:00etatik 20:00etara**. Programaren helburua da elkarlanean eta sormenean oinarritutako aisia sustatzea eta gazteen artean harremanak sortzea. Programa horri buruz zerbait gehiago jakin nahi baduzu, Gaztelekun jasoko duzu argibidea (948 35 59 70 edo juventud@villava.es).

## Disfruta de las tardes de domingo
El pasado mes de diciembre se puso en marcha el nuevo programa de ocio dirigido a jóvenes de entre 12 y 17 años para ofrecer actividades de ocio los domingos **de 17:00 a 20:00** en el Gazteleku. El programa tiene como objetivos fomentar el ocio colaborativo y creativo y generar relaciones sociales entre la población joven. Si quieres saber más sobre este programa, infórmate en el Gazteleku (948 35 59 70 o juventud@villava.es).





### OTSAILA / MARTXOA
- **Otsailak 8:** diseinatu zure inaute mozorroa
- **Otsailak 15:** mozorro festa Gaztelekun
- **Otsailak 22:** kamiseta tailerra
- **Martxoak 1:** filma eta krispetak
- **Martxoak 8:** M 8ko manifestazioa (Emakumeen Nazioarteko Eguna)

### FEBRERO / MARZO
- **8 de febrero:** diseña tu disfraz de Carnaval
- **15 de febrero:** fiesta de disfraces en el Gazteleku
- **22 de febrero:** taller de camisetas
- **1 de marzo:** peli y palomitas
- **Martxoak 8:** manifestación por el 8 M (Día internacional de las mujeres)

# KANPALDIAK
## Hiru Herri 2026
### ATARRABIA, UHARTE ETA BURLATA

# CAMPAMENTOS
## Hiru Herri 2026
### VILLAVA, HUARTE Y BURLADA

**3 HERRI NATURA CONNECTION!**

**SAN MIGUEL DE ARAS**
Voto (Kantabria)
**Noiz:** uztailaren 27tik 31ra
**Nor:** 2012an eta 2013an jaiotakoak
**Non:** Natur Cantabria aterpetxea
**Jarduerak:** kanoak Asón errekan, belaontzia Santoñan, surfa Berriako hondartzan, arku-tiroa, kobazulo bat bisitatzea eta askoz ere gehiago
**Prezioa:** 160 euro

**ZUHATZA**
Uribarri-Ganboako urtegia (Araba)
**Noiz:** uztailaren 26tik 30era
**Nor:** 2009, 2010 eta 2011n jaiotakoak
**Non:** Zuhatzako gazte aterpetxea
**Jarduerak:** arrauna, piragua, windsurf, belaontzia, pedaloak, naturako jarduerak eta askoz ere gehiago
**Prezioa:** 100 euro

**CONQUIS 3 HERRI KANPALDIA**

**CONQUIS HIRU HERRI**
Esperientzia zoragarria bizi nahi baduzu, hau da, kanpatu, jolastu, primeran pasatu, zure asmamena probatu eta lagun berriak egin, emazu izena Conquis 3 Herri kanpaldian. Jakizu zer kanpamentu egokituko zaizun eta prestatu zaitez biziraupen proba berriak gainditzeko.
**Noiz:** ekainak 24, 25 eta 26
**Nor:** Nor: 2009, 2010 eta 2011n jaiotakoak. Aurreko edizioetan parte hartu ez dutenek izanen dute lehentasuna, baina berriz ere etorri nahi baduzu, bidali bideocasting bat **662 031 673** mugikorrera edo **juventud@villava.es** postara. Aukeratua bazara, Gazteria arloa jarriko da zurekin harremanetan
**Prezioa:** 85 euro





INFO+:
948 35 59 70 0
juventud@villava.es

| | |
|---|---|
| **IZEN-EMATEA:** OTSAILAREN 9tik 16ra (948 012 012 / www.villava.es) | **INSCRIPCIONES:** DEL 9 AL 16 DE FEBRERO (948 012 012 / www.villava.es) |
| **PLAZA ZOZKETA:** OTSAILAK 17 | **SORTEO DE PLAZAS:** 17 DE FEBRERO |
| **ORDAINKETAK:** OTSAILAK 18-23 | **PAGOS:** 18-23 DE FEBRERO |
| KASU GUZTIETAN ATARRABIAN ERROLDATUTADA UDENEK DUTE **LEHENTASUNA** | EN TODOS LOS CASOS TIENEN **PRIORIDAD** LAS PERSONAS EMPADRONADAS EN VILLAVA |





**3 HERRI NATURA CONNECTION!**

**SAN MIGUEL DE ARAS**
Voto (Cantabria)
**Cuándo:** del 27 al 31 de julio de julio
**Quién:** nacidos/as en 2012 y 2013
**Lugar:** albergue Natur Cantabria
**Actividades:** canoas en el río Asón, vela en Santoña, surf en playa Berria, tiro con arco, visita a una cueva y mucho más
**Precio:** 160 euros

**ZUHATZA**
Embalse de Ulibarri-Gamboa (Álava)
**Cuándo:** del 26 al 30 de julio
**Quién:** nacidos/as en 2009, 2010 y 2011
**Lugar:** albergue juvenil de Zuhatza
**Actividades:** remo, piragua, windsurf, vela, pedalos, actividades en la naturaleza y mucho más
**Precio:** 100 euros

**CONQUIS 3 HERRI KANPALDIA**

**CONQUIS HIRU HERRI**
